BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4480

AGINDUA, 2011ko uztailaren 21ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Alce-Alce Fundazioa» fundazioaren estatutuetako 8 bis, 13. eta 14. artikuluen aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko maiatzaren 6an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean, Fundazioaren izenean Miren Josune Linacisoro andreak sinatutako instantzia jaso zen, non honako hau eskatzen baitzitzaion Euskal Autonomia Erkidego Fundazioen Erregistroari: Fundazioaren estatutuetako 8 bis, 13. eta 14. artikuluen aldaketa (idazketa berriarekin) inskriba zezala; horretaz gain, honako kopia baimendua ere aurkeztu zen: 2011ko otsailaren 22an, Donostiako Fermín Lizarazu Aramayo notarioaren aurrean (protokolo-zk.: 631), Patronatuko idazkari denez, Fermín Lizarazu Aramayo jaunak egiletsitako eskritura publikoarena; betiere, Andrés Muñoz Peña lehendakariaren oniritziarekin. Aipatu eskritura, estatutuak aldatzeari buruzkoa da; eta aldaketa hori aipatu organoak erabaki zuen 2010eko ekainaren 10ean.

Bigarrena.– 2011ko maiatzaren 25eko idazki baten bitartez, Fundazioen Erregistroak zera eskatu zion Fundazioari: aldaketak egitea eragin zuten arrazoiak, Fundazioaren xedea errespetatzeari buruzko adierazpena eta fundatzailearen galerazpenik ez dagoela jasotzen dituen dokumentazio osagarria [Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 44.4.b) artikulua zena]. 2011ko ekainaren 21ean, Justizia eta Herri Administrazio Sailean, estatutuen aipatu aldaketari buruzko erabakiaren egiaztagiria jaso zen, betiere hartarako arrazoiak eta Fundazioaren bideragarritasunari eta xedeari ez zaiela eragiten adieraziaz; lehen aurrekarian aipatu idazkariak eta lehendakariak eman zuten delako egiaztagiria.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri

Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Donostiako «Fundación Alce-Alce Fundazioa» fundazioaren estatutuetako 8 bis, 13. eta 14. artikuluen aldaketa onartzea (idazketa berria emanez).

Bigarrena.– Agindu honen egunean, Fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko agintzea; betiere, Donostiako Fermin Lizarazu Aramayo notarioaren aurrean (protokolo-zk.: 631), 2011ko otsailaren 22an, egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako zehaztapenekin bat etorriaz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 21a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.